

XABIER ARNAIZ 20 URTE PRESO DARAMAZKIEN HERNANIARRA

“Kartzelan zai bizi zara beti: eskutitzaren zai, patiorako zai, bisita zai; beti zai, itxoiten”


■ Xabier Arnaizen ustez, Sakabanaketa ez da bukatuko diseinatu zutenek isilik segitzen duten artean ■ Atzo ekitaldi politikoa eta bazkaria egin ziren Arnaizen egoera gogoratu eta libre uzteko eskatzeko.

XABIER Arnaiz hernaniarrak 20 urte daramazki kartzelan. 1982ko ekainaren 3an atxilotu zuten ETako kide zela leporatuta eta Ocaña I kartzelan ari da orain kondena betetzen. Transizioa ezkerotzik bera da kartzelan denbora gehiena daramakien hernaniarra. Orain dela 5 urte bete zituen zigorraren hiru laurdenak, baina, Arnaizek berak dioenez badago *puska baterako*. Egunotan bere aldeko ekitaldiak egin dira. Atzo ekitaldi politikoa eta bazkaria izan ziren.

Xabier Arnaizek Kronikari kontatu dio kartzelako egoera eta bizoduaren berri. 20 urteotako balantzea eskatuta, Xabierrek dio kartzelan pertsona zai bizi dela beti: zai patiora joateko atea noiz irekiko, zai bisitetara joateko, eskutitzen zai, bisitek ekarritako paketearen zai; “Beti zai, itxoiten” dio Arnaizek. “Eta noski, ate haundia noiz zabalduko zai, behingoz zulo hau utzi eta etxera abiatzeko. 20 urte eta beti zai. Eta oraindik puska baterako”.

Dispersioa

Arnaizen ustez, euskaldunentzat asmatu zutenetik dago sakabanaketa. “Beti egon da eta horrela jarraituko du” dio. Bere esanetan, preso egoteaz gain, sakabanaketa beste zigor bat gehiago da, eta bi helburu ikusten dizkio: presoak lagunetatik, etxetik eta herritik urruti egotea, eta preso kolektiboa desagitea. Arnaizen ustez, dispersioak ez du bere helbururik lortu. Lortu duen



Xabier Arnaiz.

bakarra familietan eta inguruan min izugarria egitea da..

Beste preso asko bezalaxe, Xabier Arnaiz ere dispersioren kontrako borrokan ari da kartzelatik: arratsaldean 2 ordu ditu patiora ateratzeko eta protesta egiteko zeldan gelditzen da. 24 orduetatik 22 zeldan pasatzen ditu. Preso hernaniarrak ez du sakabanaketa bukatuko den esperantza haundirik: “Diseinatzen lagundu zutenak isilik eta ezer egin gabe dauden bitartean, ez dago zer eginik.”

20 urteko balantzeaz galduta, Arnaizek dio kartzelako esperientzia, bere txarrean eta bere gogorrean, esperientzia aberasgarria ere

badela. “Gauza bat erakusten du honek: pazientzia izaten” dio hernaniarrak.

Axeri Bila krossa

Xabier Arnaizen afizioetako bat kirola da, korri egitea. Herrian eta Almerian zegoela, egun batean Donostiako maratonia egitea amesten omen zuen. Umore tonoa dio, hori igual gehitxo izango zela pentsatu zuela gero, eta Behobiarako hasi zela prestatzen, patioari 220 buelta emanaz, 20 kilometro egiteko.

Orain, bertso zahar batek diona gogoratzen du Xabier Arnaizek: *Orduko arintasunak asentatu dira* eta Axeri Bilan korrika eginda konformatu beharko duela. □



Ekitaldi politikoa Tilosetan. Omenaldia egin zitzaion atzo eguerdian Xabier Arnaiz presoari, Tilosetan. Bertsolariek hasi zuten ekitaldia. Ondoren senitartekoek oroigarria eta loreak jaso zituzten eta Etxeratek komunikatua irakurri zuen. 200 bat lagun bildu ziren.

Huelgarako deiak 19an eta 20an

ESPAINIAKO Estatuak egin duen Lan Erreformaren kontra bi huelga deialdi egin dituzte sindikatuek. Ekainaren 19rako LAB eta ELA sindikatuek deitu dituzte langileak grebara. 12:00etan bi sindikatuek manifestazioa egingo dute. LABek Kronikari esan dionez, 09:00etan Batzarra dute plazan, gero autokarabana herrian zehar; 11:00etan Antiguoko elizan elkartu; 12:00etan manifestaziora.

CCOO eta UGTk ekainaren 20rako deitu dute greba. CCOOek Kronikari jakinarazi dionez, konbokatoria luzatuta daukate, ekainaren 20an 12:00etan Bulebarrean. □

Andre kaleko festei buruzko bilera

ASTEAZKENEAN, hilak 19, bilera egingo dute Kaxkoko bizilagunak. Andre kalean obratan ari dira eta zailtasunak dituzte urteroko Andre kaleko Jaiak antolatzeke. Horregatik, proposamena da Kale Nagusikoekin batera egitea.

Dena dela, erabakia hartu gabe dago eta auzotarrak bilerara gonbidatuta daude. Bilerak, asteazkenean, 20:00etan, Biterin. □

Gorka Martinez HBko mahai kide ohia hil da

LARUNBATEAN hil zen Gorka Martinez, 54 urte zituela. Martinez portugaletekoa zen baina, Hernanin bizitu zen zortzi urtean (1984tik 1992ra).

Bihar, asteartea, ekainak 18, omenaldia egingo diote Portugalen 19:30etan. Hernanitik autobusa aterako da, 18:00etan Atsegindegina. Txartelak hartzeko, deitu: 943 333 082. □

CATALANA OCCIDENTE  Aseguruak

**Bautista Biurrarena
Etxegoien**

Kardaberaz 40 -Behea
Tel. 943 33 24 40
Faxa 943 556602
Mobila 610 29 27 01
20120 HERNANI


LAN AHOLKULARITZA
FISKALA
KONTABLEA


Atzietza 51 Behea - 20.120 HERNANI
Tel: 943 55 02 54- Faxa: 943 33 58 01

AMEGAR, C. B.
ETXE TRESNAK

SUKALDE ALTZARIAK
HORMA ARMARIOAK
Neurrira egiten ditugu.
Izpizua 27

ELEKTROGAILUAK -TB -
BIDEOAK - HI-FI - OPARIAK
Eskaintza: FAGOR 1/2 Karga
ONTZIGARBIGAILUA 400 euro.

Txirrita kalea 15
Tel 943 551125 - Faxa 943 551603
HERNANI (Gipuzkoa)

Bikain
OKINDEGI TA GOZOTEGIA

Eguneroko ogia beti
Bikain...



Eziago poligonoa. Tel. 943 55 00 89
Elkano 12 - Tel. 943 55 31 42
Orkolaga 19 - Tel. 943 33 14 87
20120 HERNANI

PRELUDIO KONTZERTUA, ATZO



Herenegun, Don t cry for me Argabestia jotzen.

Plaza jendez bete zuen Preludioak

■ Hernaniko talde askok hartu zuten parte atzo, Preludio kontzertuan (Ttarla, koruak, musika banda...) ■ Ansorenatarak eta 'Ernani' opera izan ziren gaueko izarrak.

TXIRRINDULARIAK - SAN JOANETAKO KLASIKA



Asier Atxa helmugan sartzen.

Asier Atxa nagusi sprint-ean

ASIER Atxak irabazi zuen San Joan Klasika. 140 txirrindulari atera ziren eta *Olarra* taldeko gazteak irabazi zuen, sprintean. Xoxokara igoeran bi lagunek aldegin zuten eta beherakoan beste hiru gehitu zitzaizkien. Azkenean, bost lagun sartu ziren. Urbietakalean, Ertzainen au-

reko rotondatik, sprint luzea jo zuten eta Atxak aixa irabazi zuen.

Karrerak zailtasun bat baino gehiago izan zituen txirrindularientzat: 135 km-ko karreran, Xoxoka bi aldiz igo zuten, *Cuesta de la Muerte* behin... eta bero izugarria egin zuen. Karrera hautsi egin zen

azkenerako eta txirrindulariak talde txikitari iritsi ziren.

Mendiko saria Unai Paredesek (*Bideki* taldea) eraman zuen. Tarteko helmugak Cesar Garrizek (*Cafes Baque*). Ekiporik onena *Bideki* izan zen. Lehenengo hernaniarra Xabat Otxotorena (*Ulma*) izan zen, 25garren. □

HITZ BITAN



Seniorrak sakea zeinek aterako txanponaren zai.

✓ PELOTA -HERRI ARTEKOA

Hernaniarrak finalera. Hernaniko taldea finalera pasa da Herri Arteko pelota txapelketan. Atzo 2-1 irabazi zioten Aiako taldeari semifinalerako bueltako partidua. Kadeteek 22-2 irabazi zuten; jubenilek 22-20 galdu; eta seniorrek 22-14 irabazi. Frontoia gainezka egiteko zorian egon zen atzo, Aiatik eta Hernanitik etorritako jendetzarekin. Beroa ere pilatu egin zen eta ez zen giro pelotan aritzeko. Dena dela, azkenean nagusi.

Finala datorren igandean dute Lasarteren kontra. Lasartearek justu-justu irabazi diote semifinala Azkoitiari (4 tantugatik).

✓ JUBILATUAK

La manga del mar menorra bidaia. Irailaren 28tik Urriaren 8a arte, bidaia antolatu dute jubilatuek. Bidaian parte hartzeko zozketa ekainaren 20an egingo da, arratsaldeko bostetan jubilatutxan. Bidaiaaren prezioa 382 euro da.

✓ GAZTE TXOKOA

Kurtso amaierako ekintzak. Ekainaren 18 eta 20an kurtso osoan zehar ateratako argazkien erakusketa antolatuko da Plaza Berrian (17:00etatik 20:00etara). Bestalde, ekainaren 21ean ekintza desberdinak burutuko dira Tilosetan: arku tiraketa, serigrafia eta logoen tailerra. Euria egingo balu, ekintzak Laubidietan egingo liriteke (17:00etatik 20:30etara). Kurtsoa amaitzeko ekainaren 22an merienda egingo da Gazte Txokoan.

✓ GOBERNU BATZORDEA

Ohiz kanpoko gobernu batzordea bihar. Gobernu Batzordeak ohiz kanpoko bilera egingo du bihar, astelehena 13:30etan. □

IRAGARKI MERKEAK

Pelukera laguntzailea behar da Hernanin. Presazkoa da: 943-556368

Janari denda salgai Kale nagusian. Berritua eta martxan dagoena. Interesatuak deitu: 943 55 01 36 - 55 59 14.

Kotxea salgai: Citroen Xsara Picasso HDi bat saldu nahi nuke. 2 urte dauzka eta 60.000 km. Interesatuak deitu: 639 345 900 edo 943 260 432

Pertsona bat behar dugu tabernan, pintxoak eta bokadiloak prestatzeko. Interesatuta dagoenak deitu: 652 773 122

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

►Taxiak:
943 550093
►Udaltzaingoa:
943 333288
►DYA:
943 464622
►Anbulatorioa:
943 006666
►Jokalari anonimoak
943 331103

✚ FARMAZIAK

►Egunez: Bulnes
Florida auzoa
☎ 943 557738
►Gauzez: Ansa
Andoain. Ondarreta
☎ 943 591302

✚ ASTEARTEA

►Egunez: Gomez
Kale Nagusia 15
☎ 943 554892

►Gauzez: Arzallus
Andoain. Plazaola 17
☎ 943 591514

✚ ASTEAZKENA

►Egunez: Correa
Antziola 44
☎ 943 551933
►Gauzez: Bidaur
Lasarte. Jaizkibel 2
☎ 943 362652

ETXEAK ETA LOKALAK

REI REI INMOBILIARIA
Ispizua 1 -Tel: 943 33 61 61

ASTIGARRAGA-ERGOBIA: Eraikuntza berria, 2003an entregatuko dira. Kontsulta eta erreserbak gure bulegoan.

HERNANI: Lastaola, baserrian, pisua kapritxora egokitua, 2 gela, saloia, 12 m2ko komona jakuziarekin. garaje itxia. Terrenoa. 38.000.000 pta.

HERNANI: "La Tienda" taberna alokatzen da. Lanean hasteko moduan prestatuta. Informazio pertsonala 652 776220.

HERNANI:Karmelo Labaka.Reformak bukatzeko.

NMO f3 **RED** **NMO f3**
Inmobiliaria **RED** Inmobiliaria
Kardaberaz 49 -Tel: 943 33 60 66

Apartamentua: Zentrikoa. 42.000 euro.

Latsunbe berri: Sukaldea, saloia, 3 gela, 2 komon eta trasteroa. **Berria bezela.**

Lokala: Egokitua. 90 m2. **Oso Komertziala.**

URNIETA: Sukaldea, saloia, 2 gela, komona eta trasteroa. **Oso egoera onean.**



Zure laguntza behar dugu:

- Egunero Kronika dohain jaso ahal izateko.
- Egunean 3.000 ale banatzera iritsi ahal izateko.
- Kronika astean 6 egunetan kaleratu ahal izateko.

Urtean 30 euroren truke,
egin zaitez laguntzaile.

- Kioskoetan dauden bonoak bete eta bertan utzi.
- Doberatik pasa (Nagusia 6) edo deitu 943 33 27 99ra.
- Interneten www.hkronika.com helbidean.

kronika
laguntzeko kanpaina

HELBURUA
30
EUROTAKO
1.000 laguntzaile lotura
Bai, ezta?